

Tristezia forma, zorientasuna edukia



Izatearen arintasun jasanezina

Jatorrizko izenburua: *Nesnesitelná lehkost bytí*

Egilea: Milan Kundera

Itzultzailea: Karlos Cid Abasolo

Argitaratze urtea: 2009

Argitaletxea: Alberdania&Elkar

KARLOS DEL OLMO

Izatea, bizialdia, bi amildegiren artean luzatzen da: bateko, fanatismoa dugu, besteko, erabateko eszeptizismoa. Milan Kunderaren bi obsesio horien artean dabil Karlos Cid Abasolok euskaraturiko *Izatearen arintasun jasanezina* saio itxurako eleberri, eleberri itxurako saio hau ere. Lan honetan, idatzi dituen gainerako guztietan bezalaxe, umoreak badu eginkizun berezi bat, ez baita alferrekoa idazleak estalinismoaren garaian irribarra edo barrea bera erabiltzea estalinista ez zen jendea ezagutzeko baliakizun moduan: irribarre egiten zuen pertsona ez zen estalinista. Munduak umore sena edo joera galtzea, horra idazlearen beste gai obsesibo (eta beldur sekretu) horietako bat: ez daukanak ongi ohi daki edukitzea zein den ona, eta berdin dio, azken batean, ez edukitze hori zeri dagokion: askatasunari, umoreari, arrakastari, laguntasunari, maitasunari, osasunari...

Eleberri honek, dena dela, saioaren iturburu agortezinetik edaten duen arren, ez du ezer zabal eta argiro baiesten: galderak bilatu eta planteatu egiten ditu. Idazleak istorioak asmatzen ditu —ala benetako Historiaren baitan txertatzen edo handik ateratzen—, eta horren bitartez itaun egiten du, etengabe. Milan Kundera ez da ergela eta ez du uste, askok legez, galdera guztien erantzuna duenik. Eleberriaren jakinduria, dena dela, gauza guztietarako galdera bat izatean datza. Eleberrigileak irakurlari mundua galdera moduan onartzen irakasten dio, eta hartu-eman horretan jakinduria ez eze, tolerantzia ere bada. Nobela egia santu eta finkoen gainean eraikitzen bada, hilik egongo da. Mundu totalitarioa (bakoitzak jar diezaion bere erreferentzia) itaunez barik, erantzunez ehunduriko mundua da: horrelako mundu batean eleberriak ezin du egoitzarik antolatu. Kunderaren iritziz, gaur egun munduan jendeak ulertu baino gehiago, gurago izaten du epaitu, itaun egin beharrean, erantzun. Eta gizakion sasi-sinesmen zarata ergel horretan, literaturaren ahotsa ia ezin da entzun.

Ardura barik esan liteke *Izatearen arintasun jasanezina* (1984) Milan Kundera (1929) idazlea eta intelektual txekiar ospetsuaren lanen gailurtzat jo daitekeela. Errusiarrek herria inbaditu zietenean txekiar askok bizi behar izan zuten dramaren eleberria da, eta ia ezari-ezarian, amodiozko eta giza harremanezko eszenen bitartez, ezein saiok bezain ondo erakusten du komunismo estalinistak indarrez txekiarren bizimodua aldarazteko entseguak nolako eragina izan zuen bai bizitza publikoan bai bizitza pribatuan. Guztia, jakina, hezurdura intelektual eta filosofiko sendo baten bitartez, baina fikzioaren arintasuna inondik inora gandutzeke.

Gai nagusia, izenburuak dioen moduan, izatearen arintasun jasangaitza da, XX. mendeko existentzialismoari estu loturiko gai bat. Baina gehiago ere badu, eta hain zuzen ere, eduki politiko, kultural eta existentziako horien nahasketak bultzatu zuen Philip Kaufman zuzendaria 1987an eleberria film bihurtzera.

Egokitzapenak idazlea guztiz ez asetzearen ondorioz, ez du berriro baimenik eman bere beste lanik zinemaratzeko.

Narrazioaren ardatza izatezko zalantzek inguratutik bizi den bikote bat da, hainbat gorabeheren artean, euren maitasun harremanean arintasun, mehetasun halako bat sortzen dela ikusten duten gizon bat eta emakume bat. Baina bada aurrekoarekin halako kontraste moduko bat eragiten duen beste bikote bat: protagonistaren amorante den emakumeak beste gizon batekin eraturikoa. Eta bi gizonon jarrera erabat ezberdina izango da maitasunari dagokionez: baten errealismoa bestearen idealismoaren ifrentzua da.

Idazketa denbora maisuki menperatuta, bi maitasun (edo maitasunik ezezko) istorio horietan zeloak, fideltasuna, larridura, luxuria, asperdura, traizioa eta hainbat giza miseria eta sentipen bikain nahasten dira, Kunderak sen eta trebezia literario bikainez islatzen dituela irakurlea katarsi moduko bateraino eroan arte, pertsonaiekin bat egirik sentitzeraino, Txekiako Errepublikak 1968an bizi izan zuenaren gaineko kritika politiko eta kulturala ahaztu barik. Eta horien guztion gainera, Nietzscheren kontzeptu bat: itzulera eternala, alegia, noizbait bizi izandakoa behin eta berriro bizi beharra.

Kunderaren beste lan ere badu itzulita Karlos Cid Abasolok, *Amodio barregarriak*, eta honako hau ez da Literatura Unibertsala bilduman plazaratzen duen aurrenekoa, horra hor *Xveik soldadu onaren menturak*. Oso itzulpen irakurterraza eta txukuna paratu du, ia didaktikoa dela esan ahal izaterainokoa, lanaren bikaintasunari ezer kentzen ez dioten zenbait apurreria gorabehera.

Liburuak oso itaun hil edo bizikoa egiten digu: "Hobe da oihukatzea eta horrela nork bere akabua azkartzea? Edo isildu eta heriotza mantsoago bat lortzea?". Kunderak galdera horren eta beste askoren erantzun modura hauxe dio: "Unibertso bakarra dut: eleberria".